| | |
|---|---|
| **7/2021 EBAZPENA, abenduaren 3koa.** | **RESOLUCIÓN 7/2021, de 3 de diciembre.** |
| | |
| **PRESIDENTEA:** María Barrena Ezcurra. | **PRESIDENTA:** María Barrena Ezcurra. |
| | |
| **MAHAIKIDEA:** Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia. | **VOCAL:** Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia. |
| | |
| **IDAZKARIA:** Iñigo Alvear Lekue | **SECRETARIO:** Iñigo Alvear Lekue. |
| | |
| Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordeak, lehen aipatutako kideek osatua, **EBAZPEN** hau eman du<br><br>**JAUNAK** jendaurreko informazio-eskaerari bere garaian erantzun ez izanaren ondorioz aurkeztutako erreklamazioaz. Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia anderea aritu da txostengile legez, eta Batzordearen iritzia azaldu du: | La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por **DON** , como consecuencia de la falta de respuesta a la solicitud de información pública en su momento planteada . Actúa como ponente Dña Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia, quien expresa el parecer de la Comisión: |
| | |
| **EGITATEZKO AURREKARIAK** | **ANTECEDENTES DE HECHO** |
| | |
| | |
| **LEHENENGOA.**- 2021eko maiatzaren 13an, **jaunak** (aurrerantzean, " *jauna*" edo "*erreklamatzailea*") kontsulta elektronikoa egin zion Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari. Kontsulta hori bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrei buruzkoa da eta eskaera horrek ez zuen erantzunik jaso harik eta 2021eko ekainaren 17an datuen eskaera Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluak ezartzen | **PRIMERO.-** Con fecha 13 de mayo de 2021, **DON** (en lo sucesivo, e indistitamente, "*el Sr.* " o "*el reclamante*") formuló, consulta electónica al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia sobre Menores Extranjeros No Acompañados; dicha solicitud no obtuvo respuesta hasta que el 17 de junio de 2021 se le indicó que la solicitud de datos debía ajustarse a lo establecido en el art. 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del |

| | |
|---|---|
| duena betez egin behar dela adierazi zitzaion arte.<br>Errekerimendu horri erantzunez,<br>jaunak beste eskaera bat egin zuen 2021eko ekainaren 22an. | Procedimiento Administrativo Común.<br>Atendiendo al citado requerimiento el Sr. formuló nueva solicitud el 22 de junio de 2024 |
| | |
| <u>BIGARRENA</u>. Bere eskaeran jasotakoaren arabera, 2000., 2005., 2010., 2015. eta 2019. edo 2020. urteei buruzko informazio hau eskuratu nahi zuen: | <u>SEGUNDO</u>. De conformidad con lo recogido en su solicitud, pretendía acceder a la información siguiente en relación con los años 2000, 2005, 2010, 2015 y 2019 o 2020: |
| | |
| 1.- BFAren kontura urte horietan egon diren bidaiderik gabeko adingabe atzerritarren kopurua. | 1.- Número de menores extranjeros no acompañados (MENAs) a cargo de la DFB esos años |
| 2. Horien nazionalitateak, ehunekotan. | 2.- Sus nacionalidades en términos porcentuales |
| 4. Bizkaiko harrera-zentroak. | 3.- Centros de acogida en Bizkaia |
| 4.- Horiei arreta emateko aurrekontua: guztira, zentro bakoitzeko, gastuetarako banakako diru-esleipena, prestakuntza eta espezializatutako edo arautukako hezkuntzako zein ikastetxetan, etab. Xehetasunik eman ezin bada, arloaren aurrekontu osoa, informazio publikoa dena eta, ondoren, 2. puntuan galdetu dituen nazionalitatearen araberako ehunekoak aplikatu ahal izango zaizkio. | 4.- Presupuesto dedicado a su atención: total, por centro, asignación económica individual para gastos, formación y en qué centros especializados o de educación reglada, etc ... Si el detalle no fuera posible, el presupuesto total del área, que es una información pública, al que se le podría aplicar después los porcentajes por nacionalidad que pregunto en el punto número 2. |
| 5.- Adingabe horien tutore diren aldetik: urte horietako atxiloketen eta zigorren kopurua eta zein delitu edo arau-hausterengatik. Berrerortzeak. | 5.- Como tutores que son de esos menores: número de detenciones y condenas esos años, y por qué delitos o infracciones. Reincidencias. |
| 6.- Aberritze-kopurua Marokorekin izenpetutako alde biko akordioaren arabera (martxoaren 22ko EAO-A-2013-3140). | 6.- Número de repatriaciones según el Acuerdo bilateral con Marruecos BOE-A-2013-3140 de 22 de Marzo. |

| | |
|---|---|
| | |
| 7.- Adinez nagusi izan ondorengo estatusak: prozedurak, babesa, esleipen ekonomikoak, harrera, prestakuntza..., hala badagokio. | 7.- Estatus tras su mayoría de edad: procedimientos, protección, asignaciones económicas, acogida, formación ... cuando sea el caso. |
| jaunak bere eskaeran behin eta berriz errepikatzen zuen ez direla datu pertsonalak (erlijioa, arraza, etab.), baizik eta datu orokorrak eta/edo publikoak (adibidez, aurrekontuetakoak), hau da, ez daudela gardentasunari buruzko Legearen 14. eta 15. artikuluetako informazio publikorako eskubidea mugatzeari lotuta, eta, orokorrak izateagatik eta bere lanerako derrigorrez behar izateagatik, ezta Lege bereko 18. artikuluan ezartzen den mugari ere. Eta, ukatuko litzaizkiokeen informazioaren alderdietarako, hala badagokio, ezezko hori eragin duen legezko manu espezifikoa adierazteko eskatzen zuen. | El Sr. insistía en su solicitud en que no se trata de datos de carácter personal (religión, raza, etc .. ) sino datos generales y/o públicos (por ejemplo, presupuestarios), que no son objeto de limitación al derecho a la información pública de los arts 14 y 15 de la ley de Transparencia, y por su generalidad y necesaria utilidad en su trabajo, tampoco del art. 18 de la misma ley. Y, para aquéllos extremos de la información que pudieran serle denegados, solicitaba, en su caso, que se le indicase el precepto legal específico que motive tal negativa |
| | |
| <u>HIRUGARRENA</u>.- 2021eko urriaren 22an jaunak erreklamazioa aurkeztu zuen batzorde honetan, eta adierazi zuen bigarren eskaera egin zuenetik lau hilabete igarota ez duela erantzunik jaso. | <u>TERCERO</u>.- El día 22 de octubre de 2021, el Sr. interpone reclamación ante esta comisión, señalando que transcurridos cuatro meses incluso desde su segunada solicitud, no había recibido respuesta. |
| | |
| <u>LAUGARRENA</u>.– Erreklamazioa jaso ondoren, 2021eko urriaren 26ko idazkiaren bidez, zuzendaritza nagusi eskudunari eskatu zitzaion erreklamatzaileak bere idazkian planteatutako gaiei buruzko informazioa emateko. Eskaera hori 2021eko azaroaren 17an errepikatu behar izan zen. | <u>CUARTO</u>. – Una vez recibida la reclamación, mediante escrito de 26 de octubre de 2021, se solicitó a la dirección general competente que informase respecto de las cuestiones planteadas por el reclamante en su escrito. Solicitud que hubo de reiterarse el 17 de noviembre de 2021 |
| | |
| <u>BOSGARRENA</u>.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Umeen Zerbitzuko buruaren azaroaren 19ko idazkiaren bidez, hil horretako 22an jaso zena, Administraziorako eta Gizarte | <u>QUINTO</u>.- Mediante escrito de 19 de noviembre, recibido el día 22 del mismo mes, la Jefa del Servicio de Infancia del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia remite a a esta |

| | |
|---|---|
| Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko azaroaren 17ko Ebazpena bidali zitzaion batzorde honi. Ebazpen horren bidez jaunari baimena ematen zaio bere informaziora iristeko eskaeran eskatutako informazioa eskuratzeko. | comisión la Resolución de la Directora General de Administración y Promoción Social de fecha 17 de noviembre de 2021, por la que autoriza al Sr. para acceder a la información requerida en su solicitud de acceso. |
| | |
| | |
| ZUZENBIDEKO OINARRIAK | FUNDAMENTOS DE DERECHO |
| | |
| LEHENENGOA.- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen. | PRIMERO. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de Transparencia del Territorio Histórico de Bizkaia. |
| | |
| Foru arau honen 29.1.1 artikuluaren arabera, 2. artikuluari lotuta, biak ala biak foru arau honi datxezkiola, Erreklamazio Batzordeak eskumena izango du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomiadunen, foru enpresen erakunde publikoen, foru merkataritzako sozietateen, foru fundazioen eta foru partzuergoen eta zuzenbide publikoko beste foru erakunde batzuen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzearen aurkako erreklamazioak ebazteko. | De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente. |
| | |
| Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduak, uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, bere 18. artikuluan ezartzen du, besteak beste, Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren* | Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("*Decreto Foral 128/2016*"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos* |

| | |
|---|---|
| *arabera."* | *establecidos en la Norma Foral 1/2016."* |
| | |
| | |
| BIGARRENA. Jaso ditugun aurrekarien arabera, jaunak erreklamazioa aurkeztu zuen batzorde honetan, aipatutako 1/2016 Foru Arauaren 24.3 artikuluan horretarako ezarritako hamabost egun baliodunko epea igaro baitzen. | SEGUNDO. De acuerdo con los antecedentes que hemos recogido, el Sr. formuló reclamación ante esta comisión al haber transcurrido el plazo de quince días hábiles establecido al efecto en el artículo 24.3 de la citada Norma Foral 1/2016 . |
| | |
| | |
| HIRUGARRENA. Aurrekoa gorabehera, Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako zuzendari nagusiaren 2021eko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez, jaunari baimena eman zaio bere informaziora iristeko eskaeran eskatutako informazioa eskuratzeko. | TERCERO. No obstante lo anterior, mediante Resolución de la Directora General de Administración y Promoción Social de fecha 17 de noviembre de 2021, se ha autorizado al Sr. para acceder a la información requerida en su solicitud de acceso |
| | |
| | |
| LAUGARRENA.- Aurrekoa ikusita, ondorioztatu behar da errekurtsogilearen asmoa bete egin dela, eskatutako informazioa jakinarazi baitzitzaion, baina indarrean dagoen araudian ezarritako gehieneko ebazpen-epea igaro ondoren. | CUARTO.- A la vista de lo anterior se debe concluir que la pretensión del ahora reclamante ha sido satisfecha, al habérsele comunicado la información solicitada, si bien una vez transcurrido el plazo máximo de resolución establecido en la normativa vigente. |
| | |
| | |
| Ondorioz, bidezkoa da erreklamazio hau artxibatzea, bere xedea gerora galdu izanagatik. | En consecuencia, procede el archivo de la presente reclamación por pérdida sobrevenida de su objeto. |
| | |
| EBAZPENA | RESOLUCIÓN |
| | |
| Lehenengoa.- JAUNAK sustatutako erreklamazioaren jarduketak artxibatzea, informazio publikoa eskuratzeko eskaeran ondorioztatutako uzia bete baita. | Primero. Archivar las actuaciones de la reclamación promovida por DON al haber sido satisfecha la pretensión deducida en su solicitud de acceso a información pública. |

| | |
|---|---|
| Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea errekurtsogileari eta Jasangarritasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendaritzaorde Nagusiari. Halaber, Ahaldun Nagusiari Laguntzeko Unitateko Gobernu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari ere jakinaraziko zaio. | Segundo. Notificar esta resolución al reclamante y a la Dirección General de Administración y Promoción Social del Departamento Foral de Acción Social. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia de la Unidad de Apoyo al Diputado General. |
| | |
| Hirugarrena.- Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. | Tercero. La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación. |
| | |
| Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta jarduera-araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta administrazioarekiko auziak arautzen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetzen arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik. | Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. |